



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 30ean

35 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du. Aurkeztutako osoko zuzenketak (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarena, aholkularia izendatzeko (26. or.).

—Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarena, aholkularia izendatzeko (26. or.).

—Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarena, idazkaria izendatzeko (27. or.).

—Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko laguntza teknikoa kontratatzea (27. or.).

—Erabakia, Nafarroako Parlamentuko Liburutegirako kudeaketa integraleko sistema informatikoa esleitzeko (28. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du

AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektuari egin zaizkion osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2001eko otsailaren 5eko 8 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 19an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

1. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektua atzera botatzeko

Zioak

Saltoki handiak, kontzentrazio monopolizatzaileen isla, oso loturik daude enpresa multinazionaleri. Bai hirian bai haren inguruan jarduera horrek eragin handia du hirigintzan, ingurugiroan, gizartean eta pertsonengan.

Hiri modernoetako gaitzetako bat, adituen iritziz, "hiririk ez" eredu amerikarraren inposizioa dugu, Europan barrena ere hedatu dena. Eredu horretan, kontsumo sare nagusiak hiriaren kanpoaldean daude; askotariko salgaiak eskaintzen dituzten saltoki handiek gain, aisiaren arloko zerbitzu anitzak ere badaude.

Gure ustez, Nafarroan, merkataritzako egitura nahikoa da jendearen beharrei erantzuteko, bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, biztanle gutxi garelako, beste eskualde batzuetakoan aldean, eta, bestetik, denda eta saltoki txikiak moldatu direlako nola edo hala tamaina ertain edo handikoekin elkarrekin bizitzera; honen adibide ditugu,

hiri barneko supermerkatuak azoka publikoen alboan.

Baina hipermerkatuen sorrerarekin batera apurtu egin da oreka hori. Hori dela-eta, honako ondorio hauek gertatu dira:

– Lehengo trafiko-arazoak areagotu egin dira (kalkulatu da trafiko handieneko orduetan 2000 ibilgailu orduko igarotzen direla). Merkataritzaren alorrean, saltoki handiek eragina izaten dute 25-50 kilometroko itzulenguruan; horregatik, beti aukeratzen dira, autopisten bidez, edo ingurabideen bidez, ongi komunikaturik dauden lekuak.

– Egindako ikerketen arabera, hipermerkatu on batek saltzen du, janari eta etxeko gauzen alorrean soilik, 20 supermerkatuk, edo 180 autozerbitzuko, edo usadiozko 500 dendak adina, eta horrek arriskuan jartzen ditu saltoki hauen lanpostuak.

– Denda txiki hauek desagertzeak eragina izanen du auzoetako bizitzan, eguneroko gauzak erosteko denda horiei esker, auzokoen arteko harremanak sortu eta garatzen baitira, bizigunei berezko entitatea emanez.

– Saltoki handien ereduaren arabera, hiriak jardueraka banatzen dira: administrazio-zerbitzuak, hiri erdian; saltokiak, urrun eta denak batera; lan-tegiak, kanpoaldeko industrialdeetan; eta auzoak, logela modura. Hori guztia jendearen arteko komunikazio eta harremanetarako oztopoa baino ez da, eta gainera, behartzen gaitu ibilgailua edo zertarako erabiltzera.

– Bereziki latza iruditzen zaizkigu proiektatutako zentro berrietan ezarri nahi diren "Aisialdirako hipermerkatuak", haurren eta familien aisiarako leku zabalak, jarduera horiek auzo eta herrietatik bereiziz eta kultura, iparramerikar estiloari berdinduz, leku horien ezaugarriak halakoak baitira.

– Gainera, honako saltoki hauek biztanlegoaren parte bati murriztu egiten dizkiote erosteko aukerak: auzoetako establezimenduak ixtera behartzen badituzte, ibilgailurik erabiltzen ez

duten edo ibilgailurik ez duten pertsonak (adinekoak, baliabide ekonomiko gutxiak, ezgaitu fisiokoak, etab.) eskaintza eta aukera murriztagoak izanen dituzte.

– Publizitatea dugu saltoki handi horien arrakastaren gakoa. Hipermerkatuetan erosten ditugu gogoko ditugun baina behar ez ditugun gauzak, eta gainera, hasieran uste baino kantitate handiagoan. Horretaz gain, kontsumoa oso berdintsua da, bertako salgaien produkzioa eta kontsumoa sustatzen ez baita, leku bakoitzeko ekonomiaren kalterako.

– Jendearen ustez, oro har, establezimendu horiek merkeagoak badira ere, ikerketen arabera, hasieran, instalazioaren ondoren, prezioak hobeak dira, eskualdeko merkataritzaren lehia deusezteko, baina saltokiak ixten hasten direnean, eta monopolio egoeretara hurbiltzen diren heinean, prezioek gora egiten dute berriro. Horri gehitu behar zaio ere, saltzeko teknika batzuen bidez, hainbat salgai oso prezio onean jartzen direla, beste batzuk garestitzen diren bitartean. Gainera, kontuan hartu behar da erositakoaren prezioari bidai-gastuak ere gehitu behar zaizkiola.

– Gizartearendako beste kostu handi bat ere badu, kontabilizatu ohi ez dena: aparteko gastuak, urbanizazioa dela-eta. Edozeinek etxe bat eraiki edo etxebizitza bat erosten badu, azpiegitura, hau da, urbanizazio-kuota ordaindu egin behar izaten du. Hiperren kasuan, aldiz, normalean ez da horrelako araurik egoten. Hiperretarako komunikazio bideak, garesti baino garestiagoak, administrazioak eraikitzen ditu, "guztien onurarendako" aitzakiaz, hiperrek sortutako trafiko-arazoei irtenbidea emateko eta, era berean, haien onura bermatzeko.

Batzarrekoak uste dugu honako hau defendatu behar dela:

Proposamena:

– Hornidura-politika deszentralizatua, jangaietan banaketa egon ez dadin multinazionalen eskuetan soilik.

– Herriek eta auzoek aski izatea beren burua ahalik eta gehienetan, eta ongi horniturik egotea azpiegitura hauetaz: aisialdi, kultura, auzoen arteko harremanaz bai eta saltokiez ere.

– Pertsonak hezitzea arduraz kontsumitzeko, gizakion benetako beharrak asetzerantz bideratuz, izaera kritikoa bultzatuz, "izatea edukitzea baino gehiago" baloratzeko, autoa zeregin guztietarako ez erabiltzeko, eta ingurugiroarenganako eragina gutxitzeko.

– Saltoki handien ezarpena eta daudenen handitzea atzeratzea, eztabaida sakona egin ahal izateko, nahi dugun hiri-ereduei, eta herritarren ohiturei eta kontsumoko benetako aukerei buruz.

– Izan daitezkeen kontsumo-eskaerei buruzko azterketa egitea, saltoki kopuruaren eta salmenta prebisioren arteko oreka egokia lortzeko, edo beharrezkoak diren edo soberan dauden saltokiak zehazteko.

– Halaber, merkataritzako lokalak handitu edo berritzeko neurriak hartu beharko liriteke: obren eta merkataritzako jardueren gaineko udal tasak aldatzea, prezioak zonaldearen arabera finkatuz; merkatarien arteko zein merkatarien eta bertako ekoizleen (nekazariak, artisauak, tokiko enpresak...) arteko asoziazionismoa sustatzea produktuak saltzeko; toki ogasunen banaketa aldatzea udaletako aurrekontuak handitzeko, horrela herritarrek eta saltoki txikiek ordaindu beharreko udal tasak murriztuko baitira.

Horiek horrela, eta gure proposamenak lege proiektu horretan islatu ez direnez, hari uko egitea besterik ezin dugu egin, eta, era berean, gizartearen eskaerak kontuan hartuko dituen beste lege proiektu bat bidaltzeko eskatzea.

2. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko osoko zuzenketa aurkeztu dio Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektuari.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko irailaren 14an eginiko Osoko Bilkuran, gehiengoz erabaki zuen Nafarroako Gobernua premiatzea Merkataritzari buruzko foru lege orokor bat egin dezan. Foru lege orokor hori ondoko irizpideak kontuan hartuz prestatu behar zen: sektore osoa arautzea, lurraldearen antolamenduko eta hirigintzako irizpideak aplikatzea, egun dagoen merkataritza txikia eta ertaina garatzea eta suspertzea eta inplikaturako sektore guztiak kontuan hartzea legea prestatzeko.

Halere, UPNko Gobernuak ez dio jaramonik egin Parlamentuaren borondateari eta saltoki handiak antolatzerantz mugatzen den foru lege proiektua igorri du. Lege proiektu hori, gainera, gizarte mailan beharrezkoa den adostasuna lortu gabe igorri da; izan ere, lege proiektu hori prestatzerakoan ez

da aintzat hartu izan ezta merkataritzako sektorea bera ere.

Hori bera nahikoa da, berez, proiektua Gobernuari itzul dakion eskatzeko.

Proiektuak, alde bakarra arautzeaz gain, mesede egiten dio, argi eta garbi egin ere, saltoki handien instalazioari, eta Nafarroako Gobernuaren esku uzten ditu inolako mugarik gabe bai planifikazio prozesuak -Nafarroako Gobernuak onetsitako Salerosketa Antolatzeako Zuzentzauei jarraikiz arautzen dira saltoki handiak- bai baime-na ematekoak ere -udalez gaindiko plan sektoriale- len bidez kontrolatzen dira tramitazioak eta baime-nak.

Proiektuak gauza ezberdinak bailiran hartzen ditu txikizkako merkataritza eta saltoki handiak, dena bat bera dela kontuan izan gabe.

Horrenbestez, gure ustez guztiz beharrezkoa da Nafarroan sektore osoa arautzea, saltoki handien instalazioari arau horietan mugak jartzea eta usadiozko merkataritza bultzatu eta sustatzea, merkataritzako jarduera izateaz gain hiriguneak integrazteko osagaia ere badelako.

Foru lege proiektu honek, gure ustez, jarduera ekonomikoa eta giza harremanak suspertzeko balio beharko luke, bai eta kontsumo irizpide orekatuei erantzuten dien eredia bultzatzeko ere, alegia kontsumoa beharrezkoa den neurrian eta tamainan egiteko eredia bultzatzeko.

Horrek guztiak eztabaida sozial zabal baten fruitu behar du izan, zeinetan inplikatura dauden eragile guztiak parte hartu behar duten: udalak, merkataria, kontsumitzaileak, sindikatuak... Ezer arautu baino lehen eztabaida prozesu bat abiarazi behar da, eta hartan, orainak etorkizuna berriz baldintzatuko ez duelako behar adina berme eman beharko luke foru administrazioak; hau da, behar-beharrezkoa da, auzia behin betiko arautu arte, saltoki handi gehiago instalatzea galarazteko luzapena aplikatzea.

Horregatik guztiagatik aurkeztu dugu foru lege proiektua Gobernuari itzultzeko osoko zuzenketa hau.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Foru Parlamentuko Erregela-menduaren babesean, aurkeztu du ondoko osoko

zuzenketa, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzul dakion.

Abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legeak, Sarri-gurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen baitu, bere xedapen iragankorreetan, xedatu zuen Nafarroako Gobernuak ez duela saltoki handien instalazioa Sarrigurengo jarduera ekonomiko- en edo aukeren eremuan baimenduko, gure komunitatean establezimendu horien ezarpena, Merkataritzari buruzko Foru Lege orokor baten bidez garatu arte.

Nafarroako Gobernuak nola edo hala konpondu nahi izan du arazoa bi jarduera ezberdinen bidez. Lehenengoa izan da berriro bidaltzea Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektua. Bigarrena, aldiz, proiektu horren laugarren xedapen iragankorreetan iragarri da; Gobernuari sei hilabeteko epea eman zaio Gutxikako Merkataritzari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzeko. Baina Parlamentuak epe hori bera eman zion proiektu integral eta bakarra egiteko.

Oraingoan ere Biltzarraren gogoia ez da bete, aurreko batean honen antzekoa zen beste foru lege proiektu bat itzuli behar izan baitzion Gobernuari, eta aipatu testuan oso argi azaldu zuen zein zen gai horretarako nahi zuen tratamendua. Hala eta guztiz ere, Gobernuak temati segitzen du banatzearekin eta saltoki handiak arautzeko eskumeneko legedia lortzearekin, ematen baitu horiek direla haren kezka nagusiak, edo behinik-behin, beste talde batzuenak, merkataritza edo asialdiarekin espekulatzeko azoka edo gune paregabetzat hartzen baitute Foru Komunitatea.

(...) Horren bidez Nafarroako Parlamentuari eskatu zaio Saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzeko erabakia har dezan.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak osoko zuzenketa, ordezkotestua duena, aurkeztu dio Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektuari. Zuzenketa honako arrazoi hauek justifikatu dute, besteak beste:

Sozialisten Parlamentuko Taldearen ustez, Nafarroako Foru Komunitateko merkataritza modu orokorrean arautu behar da, merkataritzan gertatzen ari diren aldaketei egokituriko legediaren bidez, gure komunitatean lurralde-oreka egokia lortzeko.

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako Lege proiektua merkataritzaren alor bakar bat arautzeaz baino ez da arduratzen, saltoki handiez, alegia.

Talde sozialistaren iritziz, Nafarroako Foru Komunitatean saltoki handiak ezartzeko irizpide nagusiak arrazionaltasuna eta gardentasuna behar dute izan, eta irizpide objektiboak oinarritzat hartu behar dira. Horrek guztiak legedi oso bat eskatzen du gure komunitateko merkataritzaren egoera argitzeko.

Parlamentuko talde sozialistak behin baino gehiagotan adierazi du saltoki handien arautzea Nafarroako Merkataritzari buruzko lege orokor batean jaso behar dela, horrela, lurraldearen antolamendu, arrazionaltasun eta orokortasunaren irizpideei jarraikiz, egun dagoen merkataritzaren garatze, berritze eta berpiztea arautu ahal izateko.

Horiek horrela, eta proposatu den ordezkotestuko zioen azalpeneko arrazoiengatik, osoko zuzenketa hau aurkeztu da.

ORDEZKO TESTUA

Nafarroan merkataritza arautzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Hobekuntza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko Lege Organikoko 56.1.d) artikuluan xedatuarren arabera, Nafarroak eskumen osoa du barne merkataritzaren gainean, deusetan ukatu gabe prezioen politika orokorra, ondasunen zirkulazio librea lurralde nazionalen eta lehiaren defentsari buruzko lege-ria.

Foru lege honek gure Foru Komunitateko barne merkataritza –hari buruzko arau eta errege-lamenduak sakabanaturik daude– antolatzen du. Espainiako Konstituzioko 38, 51 eta 131. artikuluek ezarritako esparruan oinarritzen da eskumen hori baliatzea. Halatan, aintzat hartu dira merkataritza modu berrien azterketa eta erregulazioa, enpresa askatasunaren defentsa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babesa eta bermea eta txikizkako merkataritzaren dinamizazioa, sektore sentibera hori ekonomian eta, oro har, gizartean gertatzen diren aldaketei azkar egokitzearren.

Nafarroako merkataritza sektorean aldaketa handiak ari dira gertatzen, ekoizleengan, kontsumitzaileengan eta bereziki merkatariegan eragina dutenak. Merkaturatzeko metodo eta sistema berriak sortu dira, dimentsio ertain eta handikoak, eta horren eraginez aldatzen joan dira merkataritzan zeuden saltzeko modurik usadiozkoenak.

Hartara, foru lege honen printzipio gidariek hiri-gintza eta ekonomia interesak harmonizatu nahi dituzte, usadiozko sektoreak kalterik izan ez dezan eta merkatuko lehentasun egoerarik gerta ez dadin; baina, aldi berean, kudeatu, administratu, saldu eta zerbitzu emateko modu berriak sustatu nahi dira, ahaztu gabe noski enpresa askatasunari zor zaion errespetua eta txikizkako merkatarien hainbat betebeharren aurrean kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes ekonomikoei zor zaien babesa.

Foru lege honek zortzi titulu ditu. Haietan zehazten da jarduteko esparrua eta definitzen da legearen helburua. Hainbat saltoki motaren kontzeptuaren arabeko zerrenda egiten da, horien definizioa emanez, eta bereziki arautzen da saltoki handi eta ertainetarako merkataritza-lizentzia berariazkoa, eta horiek emateko irizpideak finkatzen dira .

Arautu egiten dira merkataritza ordutegiak, eskaintza bereziko salmentak eta salmenta bereziak, eta Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroa sortu da.

Orobat arautzen dira etxex etxeko salmenta, kate edo piramide gisako salmenta eta aldizko salmenta.

Merkataritza elektronikoari eta handizkako merkataritzari buruz etorkizunean araudi osoa eman ahal izateko ere, hasierako erregulazioa ematen da.

Azkenik, lege testuan hitzez hitz jaso nahi izan dira merkataritza txikiari laguntzeko hainbat neurri, lehia librea ezertan ere galarazi gabe haren egitura hobetu eta modernizatzeko moduan egon dadin eta erabat lehiakorra izan dadin.

LEHENBIZIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Helburua eta aplikazio eremua.

1. artikulua. Helburua.

Foru lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitateko txikizkako merkataritza arautzea,

eta, horrela, merkataritza egiturak hobetu eta modernizatzea, bai eta eskaintza bereziak egiten dituzten zenbait jarduera normalizatzea ere.

2. artikulua. Printzipio gidariak.

Foru lege honek hurrengo oinarritzko printzipioak izanen ditu, eta hurrengoak bultzatuko:

Txikizkako merkataritzak Nafarroako udaletako hiriguneetan izan duen ohiko egiturari eutsi diezaioa.

Merkataritzak dituen hazkunde modu berriak erabiltzean, berdintasuna handiagoa izan dadila.

Merkataritza jardueren hazkundea harmoniatua eta orekatua izan dadila, hiri-inguruen garapen jasangarria lortzea hartu behar baita helburu.

Administrazio publikoek parte har dezatela saltoki handiak jartzeak sorrarazten dituen plusbalioetan.

Gizarte eragileek, kontsumitzaileek bereziki, parte har dezatela merkataritzaren garapenean.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean egiten diren merkataritza jardueri aplikatuko zaie foru lege hau.

Legedi berariazkoa duten txikizkako merkataritza jarduerak legedi horren osagarri izanen dute lege hau.

Lege hau aplikatzeko ez da kontuan hartuko txikizkako merkataria, aldi berean, eskaintzen dituen salgaien fabrikatzailea den edota salgai horien handizkako merkataria.

Hurrengoek berariazko arauak dituzte eta foru lege honen aplikazio eremutik at daude:

Nekazariak eta abeltzainak eginiko zuzeneko salmenta, nekazaritza eta abelazkuntzako produktuak egoera naturalean eta produkzio lekuan saltzen direnean, edo, baita ere, ekoizpena biltzeko kooperatibetan saltzen direnean.

Artisauek beren lantegietan, ferietan eta sektoreko azoketan eginiko produktu salmenta.

II. KAPITULUA **Txikizkako merkataritza**

4. artikulua. Kontzeptua.

Foru lege honen ondorioetarako, txikizkako merkataritza da merkatuan produktu naturalak edo elaboratuak azken buruko hartzaileei helaraztea edo eskaintzea helburu duen jarduera profesionala, irabazi asmoz egina denean, eta kontuan

izanik saltokia erabiliz edo erabili gabe egin daitekeela.

5. artikulua. Aldi berean aritzea txikizkako merkataritzan eta handizkako ekoizpen edo banaketan.

Foru lege honen ondorioetarako, handizkako merkataritza da beste merkataria edo enpresaburu batzuk hartzaile dituen, baldin eta ez badira horiek azken buruko hartzaileak.

Saltoki batean aldi berean egiten badira txikizkako merkataritza eta handizkako, beharrezkoa izanen da ezartzea zein gunetan egiten den txikizkako merkataritza, eta merkataritza mota bakoi-tzari dagozkion arauak bete beharko dira.

6. artikulua. Kooperatibak eta antzeko forma juridikoak.

Kooperatibek edo antzeko beste forma juridiko batzuek ezberdindu egin beharko dute zer eskaintzen dien bazkideei eta zer beste guztiei. Bazkide ez direnei zer eskaintzen zaien horri aplikatuko zaio legea, eta bazkide direnei eta ez direnei zer eskaintzen zaien argi eta garbi agertzen ez denean ere legea aplikatuko da.

7. artikulua. Merkataritzan aritzeko debekuak eta mugak.

Ezin izanen dira merkataritzan aritu, araudiak berariaz hori debekatzen dien enpresaburuez gain, enpresaburu indibidualak nahiz sozietateak, baldin eta, zertan aritzen diren, jarduera horretako arau bereziak eskusibotasunez aritzeko beharra ezartzen badiete.

Esprekuki debekatzen da azken buruko hartzaileari salgaiak erakutsi eta saltzea bai eta salgaien katalogoak, liburuxkak edo publizitatea igortzea edo ematea, baldin eta salgai horien jatorria merkataritzan aritzen ez diren pertsonak badira eta, pertsona horien jardueraren ondorioz, helburu nagusia bada merkataritza-eskaintzari atxikiriko maileguak, gordailuak eta antzeko eragiketak egitea, halako moduz non bata egitea ezinezkoa baita bestea egin gabe.

Edonola ere, horrelakorik badela uste izanen da erosleak aipatutako pertsonen salgaien eskabi-deak egiten badie edo haien saltokietan salgaiak erosten baditu.

III. KAPITULUA

Merkataria, sustatzailea eta operadorea

8. artikulua. Merkataria.

Foru lege honen ondorioetarako, merkataritzat hau hartuko da: merkataritzan aritzeko ahalmena

izan eta bere izenean, eta ohiko lanbide gisa, txikizkako merkataritzan aritzen den pertsona fisiko edo juridikoa.

9. artikulua. Sustatzailea.

Sustatzailea da 13, 14 eta 15. artikuluetan ezarritako saltoki bat proiektatu, sustatu edo erakitzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, eta haren funtzionamendua eta kudeaketa antolatzen duena, ondoren saltzeko edota zuzenean edo zeharka ustiatzeko.

10. artikulua. Merkataritzako operadorea.

Operadorezat hartuko da saltoki handi baten titularraren pertsona fisiko edo juridikoa.

11. artikulua. Sustatzaileen eta operadoreen eskubideak.

Sustatzaile eta operadoreen eskubidea da libre aritzea haien jardueran, arloko legedia muga dutela.

12. artikulua. Sustatzaileen eta operadoreen betebeharrak.

Sustatzaileek eta operadoreek hurrengo betebeharrak dituzte:

- Jardueran aritu beharko dute kontuan izanez, betiere, saltoki handia non dagoen, hango merkataritza beharrak.

- Saihestu egin beharko dute edozein motatako lehia desleiala edo publizitate engainagarria; bereziki, merkataritza eremuko merkataritza arlo baten iraupena arriskuan jartzen badu.

- Saihestu egin beharko dute monopolio gisa aritzea edo merkaturaren mendean balute bezala aritzea.

- Horien kargura izanen dira saltokia jartzearen ondoriozko urbanizatze obra guztiak, ingurumenerako eraginak zuzentzeko gastuak ere horien gain izanen dira, eta, halaber, haiek ezarri beharko dituzte, eskaera eta baimenaren arabera, trafikoa antolatzeko neurriak eta sarbideak.

BIGARREN TITULUA
Saltokiak

I. KAPITULUA
Saltokia

13. artikulua. Kontzeptu orokorra.

Saltokitzat hartuko dira zoru gaineko lokal, eraikin edo instalazioak, estaliak edo estali gabekak, salbuetsiak edo salbuetsi gabekak, eraikin baten barnekoak edo kanpokoak, erakusleihodu-

nak izan ala ez, baldin eta txikizkako produktuak jarraian edo aldizka saltzea badute helburu, edo izaera hori duten zerbitzuak aurkeztea; orobat, saltokitzat hartuko da beste edozein esparru mugatu, baldin eta lege edo erregelamendu batek hala ezartzen badu.

Saltokiak indibidualak edo kolektiboak izaten ahalko dira.

14. artikulua. Merkataritza-gunea.

Merkataritza-gunea da eraikin edo esparru beraren barrenean dauden salmenta-puntu edo zerbitzuen multzoak osatzen duen saltoki kolektiboa, non enpresa-jarduerak beregain egiten diren, baldin eta lokal guztiak batera proiektatuak badira eta zenbait elementu komunean erabiltzen badiuzte.

15. artikulua. Merkataritza-parkea.

Merkataritza-parkea da merkataritza-gunearen ezaugarriak dituen saltokia, baina, gainera, aisialdiko zerbitzu eta jarduera multzo bat eskaintzen du, hala nola, zinemak, josteta aretoak, tabernak, jantokiak, edo beste mota bateko zerbitzuak, konparazio batera turismoarekin zerikusia dutenak, kulturarekin, etab.

16. artikulua. Merkataritza-aldea.

Merkataritza-aldekat hartuko da hiri-lurzoruko edo lurzoru urbanizagarriko eremu bat, zeinetan saltoki bat baino gehiago baitago edo merkataritza indibidual edo kolektiboarentzako zerbitzu bat baino gehiago, eta horien ustiaketa eta kudeaketa beregaina baita.

II. KAPITULUA
Txikizkako saltoki handiak

17. artikulua. Kontzeptua.

Txikizkako saltoki handitatz hartuko dira txikizkako merkataritzan –askotarikoan edo espezializatuan– aritzen diren saltoki indibidual edo kolektiboak, produktuak nahiz zerbitzuak saldu eta erakusteko duten azalera erabilgarria 2.500 metro koadrokoa baino gehiagokoa bada.

Produktuak nahiz zerbitzuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarritzat hartuko da produktuak nahiz zerbitzuak erakusgarri izaten dituenak, ohiz ala noizik behinka, bai eta pertsonen pasabide diren lekuak, eta, orobat, produktuak aurkeztu, eman eta kobratzeko diren lekuak. Ez dira azalera erabilgarritzat hartuko, inola ere, bulegoak, apartakalekuak, jendeak bisita ez ditzakeen zamalanetarako eremuak eta biltegiak, eta, orokorrean, jendearen sarrera murriztuta duten leku guztiak.

Hurrengoak ez dira saltoki handizat hartuko:

- Handizkako merkatuak.
- Udal merkatuak.

18. artikulua. Saltoki handirako lizentzia.

Saltoki handi bat jartzeko edo handitzeko, eta udal lizentziak eskatu aurretik –saltokia jartzeko lizentzia, obra lizentzia, eta irekitzeko lizentzia–, beharrezkoa da merkataritza-lizentzia berariazkoa bat, foru lege honen arabera izan behar baita.

Saltoki handirako lizentzia behar da, baita ere, hurrengoetan:

- Saltokien handitzea 2.500 metro koadro baino gehiagokoa denean.
- Baimendutako saltoki handi batek jarduera edo merkataritza-arloa aldatzen duenean.
- Saltoki handi bat berriro irekitzen denean, baldin eta urtebete baino gehiago egon bada itxita.

Hurrengoek eskatu behar dute saltoki handirako lizentzia:

- Saltoki kolektiboen kasuan, sustatzaileak edo operadoreak, merkataritza-gunea izan edo merkataritza-parkea.
- Saltoki indibidualen kasuan, negozioaren merkataritza titularra edo operadorea.

Ezin izanen da inter vivos laga saltokia irekitzeko lizentzia, baldin eta lizentzia eman duen organoak ez badu aurretik horretarako baimena eman, non eta ez den enpresen arteko baterekin edota eskaera egin duen enpresa ez duen hirugarrenen batek irensten. Lagapen-hartzailea, edonola ere, lagatzaileak foru- edo udal-administrazioarekin hartutako konpromisoetan subrogatuta geldituko da.

19. artikulua. Eskabidearen edukia eta beharrezkoak diren agiriak.

Merkataritza-lizentzia berariazkoaren eskabidea Nafarroako Gobernuko Merkataritza Departamentura igorriko da; horretarako, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak onartutako edozein bide erabili ahal da.

Eskabidearekin batera, hurrengo agirien bi ale igorriko dira.

A) Sustatzailearen nortasuna eta ordezkaritza frogatzen duten agiriak.

B) Proiektatutako saltokiaren ezaugarriak.

Jarri nahi den saltoki motaren deskribapena; adierazi behar da guztira eraikitako azalera, produktuak erakutsi eta saltzeko azalera erabilgarria, bai eta pertsonen pasabide izanen diren lekuak, biltegiak eta bestelakoak.

Merkataritza-gune baten barrenean dagoen saltokia bada, adieraziko da salmentarako zenbat lokal dauden, nola dauden banatuta, eta horien tamaina.

Aparkalekutarako izanen den azalera eta zenbat aparkaleku izanen diren.

Aurreproiektu teknikoa, non saltokiaren oina, altxaera eta sekzioak jasoko baitira.

Udalerriko zein eremu geografikotan jartzeko asmoa dagoen, zenbateko tartea dagoen hirigunearekiko eta zer sarbide egingen diren saltokia jartzeko asmoa dagoen tokian bertan.

Proiektatutako saltokiaren aurrekontua, guztira eta kapituluka banatuta.

C) Merkataritza eskaintza.

Saltoki berriari salduko diren produktuen deskribapena, zein atal izanen dituen saltokiak eta bezeroei eskainiko zaizkien zerbitzu osagarriak.

D) Konpromisoak.

Zenbat enplegu sorraraztea aurreikusitako den, horri buruzko oroit-idazki deskriptiboa; zein izanen den saltokiaren langile-kopurua adieraziko da, bai eta zein izanen diren kontratu motak.

Proiektua egiteko aurreikusitako egutegia.

Sustatzaileak hartzen dituen konpromisoak, egoki irizten bada, lizentziaren baldintzetara ekaritzen ahalko dira, eta horiek ez betetzea lizentzia errebokatuarazi dezakete.

E) Txostenak.

Eskaera egin duenak ondoko txostenak ekarri behar dituzte, enpresarekin loturarik ez duten profesionalen eginak.

Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena, eta, horrekin batera, merkatuari buruzko azterlan bat, fakturazio aurreikuspenak ere izanen dituenak.

Proiektuaren eragin ekonomikoari buruzko txostena; argi adierazi behar da saltoki hori jartzeak zer eragin izanen duen prezioetan, eskaintzaren maila eta kalitatean, merkataritza jarioan, eta banaketaren sektorearen merkatukotan.

Proiektuak ingurumenean izanen duen eraginareneko ebaluazioa.

Proiektuak errepide sarean, trafikoan eta ingurumenean izanen duen eraginari buruzko txostena.

Proiektuak eskualdeko enpleguan izanen duen eraginari buruzko txostena.

Merkataritza Departamentuak Lehiaren Defentsako Auzitegiari txostena eskatuko dio, ez baita loteslea izanen.

Merkataritza Departamentuak, halaber, agiri edo datu osagarriak aurkeztea eska dezake, eman direnak nahikoa ez badira.

20. artikulua. Merkataritza-gune eta -parkeetarako lizentzien tramitazioa.

Merkataritza-gunea edo -parkearen sustatzailea edo operadoreak saltokia jartzearen gaineko espediente erregulatzailerak egin beharko du, Nafarroako Gobernuaren Merkataritza Departamentuari aurkeztuko baitio; hurrengoak izan beharko ditu espediente horrek:

Saltoki handirako merkataritza-lizentzia, 18. artikuluko agiriarekin batera.

Udalez gaindiko proiektu sektoriala; horren edukia bat etorri beharko du Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearekin. Aipatutako proiektua Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura igorriko da.

18. artikuluan eskatutako agiriak aztertu ondoren, Merkataritza Departamentuak saltokia jarriko den udalean aurkeztutako proiektuari buruzko txostena eskatuko du. Halaber, txostena eskatuko die Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari (CEN), kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte nagusiei, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta sindikatu nagusiei. Egoki irizten dituen txostenak ere eskatzen ahalko ditu. Txostenak hilabeteko epean emanen dira, eta, epe hori amaituta txostenik egin ez bada, prozedurak aurrera egingen du.

Txosten horiek egiteko, zuzendaritza nagusiak espedientearen laburpen bat helaraziko die aipatutako elkartei; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen behar diren agiriak eskatu eta aztertzeko.

Merkataritza Departamentuak eta Lurraldearen Antolamendu Departamentuak, aurkeztutako agiriak eta eskatutako txostenak ikusita, ebazpen proposamen bana egingen dute, bakoitzak dagokion arloan, eta Gobernura igorriko dituzte.

Nafarroako Gobernuari dagokio lizentzia baimentzea edo ukatzea, bai eta, behar izanez gero, udalez gaindiko proiektu sektoriala. Horretarako bi hilabeteko epea izanen du, aurreko puntuan aipatutako ebazpen proposamenak jasotzen dituenetik kontaktzen hasita. Epea pasa eta ebazpen espresik eman ez bada, merkataritza-lizentziaren eskaera eta proiektua onetsizat hartuko dira administrazioaren isiltasunez.

21. artikulua. Saltoki handi indibidualetarako lizentzien tramitazioa.

Saltoki handi indibidualetan sustatzaile edo operadoreak Merkataritza Departamentura igorri beharko du saltoki handirako lizentzia-eskabidea, 19. artikuluan eskatutako agiriarekin batera.

Merkataritza Departamentuak lizentziaren instrukzioa egingen du; jasotako agiriak aztertuko ditu, eta dagokion udalari eta Nafarroako txikizkako merkataritzako kontseilu aholku-emaleari aurreko artikuluan aipatutako txostenak eskatuko.

Merkataritza Departamentuak espedientearen berri emanen dio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, eta eskatutako txosten loteslea egin dezan saltokia jartzeak hirigintzan eta lurraldean izanen duen eraginari buruz; behar izanez gero, udalez gaindiko proiektu sektoriala eskatzen ahalko du edo udal planeamenduaren aldaketa.

Txostena lizentzia ematearen aldekoa bada, Merkataritza kontseilariari igorriko zaio espediente, zeinak saltokia handirako merkataritza-lizentzia ematea ebatziko baitu.

Txostena aurkakoa bada, espediente osoa Gobernuari igorriko zaio, zeinak lizentzia ebatzi beharko baitu lege honetan ezarritako irizpideei jarraituz.

Udalez gaindiko proiektu sektoriala egin behar bada, saltoki handia jartzeko hirigintzaren aldetik egokitzapenak egin behar direlako, aurreko artikuluan ezarri bezala jokatu da, eta Nafarroako Gobernuak eman beharko du behin betiko ebazpena.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak txosten loteslea luzatu eta bi hilabeteko epean eman beharko dute ebazpen horiek. Hala ere, beharrezkoa bada udalez gaindiko proiektu sektoriala egitea, aurreko artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Epea pasa eta ebazpen espresik eman ez bada, merkataritza-lizentzia onetsizat hartuko da administrazioaren isiltasunez.

22. artikulua. Saltoki handirako merkataritza-lizentzia emateko irizpideak.

Lizentzia emateko edo ukatzeko, hurrengo irizpideei jarraituko zaie:

A) Herritarren beharrentzako merkataritza ekipamendu egokirik baden edo ez den, hurrengoak kontuan hartuz:

Proiektatutako saltokia –horren azalera eta instalazio-mota– eta jartzea pentsatzen den lekua bat datozen, haren eragin-eremua ere kontuan hartuta.

Beste autonomia erkidegoekin merkataritza jariorik baden.

B) Proiektatutako saltokiak inguruko merkataritza egituraren izanaren duen eragina. Hurrengoak hartuko dira kontuan:

Saltokia jartzeak ekar dezakeen lehia-areagoztea.

Eragin-eremuan dauden merkataritza enpresak saltokian txertatzea.

Saltoki handia eta merkataritza enpresa txikiak elkarlanean aritzeko beste edozein neurri, baldin eta proiektuaren gizarte- eta ekonomia-eragina txikitzen badute.

Saltokia jartzeak eskualdeko orekan izanaren duen eragina.

C) Saltokia jartzeak enplegu maila eta kopuruan izanaren duen eragina. Horri dagokionez, hurrengoak hartuko dira kontuan:

Saltokia jartzeak ekarriko duen enplegu areagotzea, bai eta lanpostu horien ezaugarriak ere; bereziki, lanpostuen egonkortasuna. Halaber, eragin-eremuk landunen tasan izanaren duen eragina: berdintsu jarraituko duen, edo hazi edo gutxiagotu egingen den utzi.

D) Saltokia jartzeak eskualdeko produktuen merkaturatzean izanaren duen eragina.

E) Inguruko hirigintzan eta paisajearen izanaren duen eragina. Hauek hartuko dira bereziki kontuan:

Errepide sarean izanaren duen eragina, saltokira iristeko erraztasun ala zailtasuna, aparkalekuak izanaren dituen eta beste zerbitzu batzuk ere izanaren dituen.

Saltokiaren ezaugarriak eta zenbateraino integratuko den hiri-inguruan; orobat, ingurumenean izanaren duen eragina.

23. artikulua. Toki administrazioarekiko koordinazioa.

Merkataritza-lizentzia berariazkoa ematen bada, Merkataritza Departamentuak saltokia jarriko den udalari jakinaraziko dio, behar diren obra lizentziak eta irekitzeko lizentziak eman diezazkion.

Toki administrazioak Merkataritza Departamentuari jakinarazi beharko dio noiz eman dizkion udal lizentziak, zer baldintza jarri dizkion eta zer epe izanaren duen obra- eta instalazio-proiektuak betetzeko.

24. artikulua. Saltoki handirako merkataritza-lizentziaren indarraldia.

Merkataritza-lizentziaren indarraldia mugagabea da.

Aurrekoa gorabehera, lizentzia iraungi egingen da, baldin eta lizentzia onetsi dela jakinarazi eta biharamunetik sei hilabeteko epean obrak ez badira hasi, non eta Merkataritza Departamentuak, justifikatutako arrazoiak direla medio, ez duen luzapena erabakitzen; luzapena, gehienez ere, beste sei hilabetekoa izanaren da, eta ezin izanaren da berritu.

Luzapenei dagokienez, kontuan hartuko dira udal lizentziak ematean izaniko atzerapenak.

Obren hasiera eta jardueren hasiera Merkataritza Departamentuari jakinaraziko zaio. Obren hasiera frogatzeko, zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria eskatuko da.

25. artikulua. Tasa.

Merkataritza-lizentzia berariazkoa eskatzeak tasa bat sortuko du: erakutsi eta saltzeko azalera erabilgarriko zenbat metro koadro dituen proiektatutako saltokiak, kopuru hori bider 500 pezeta.

Tasa hori eskabidearekin batera ordaindu beharko da. Tasa ez bada ordaintzen, prozedura ez da hasiko.

III. KAPITULUA

Baimena behar duten beste saltoki batzuk

26. artikulua. Azalera ertaineko txikizkako saltokiak.

Azalera ertaineko txikizkako saltokitik hartuko dira txikizkako merkataritzan –askotarikoan edo espezializatuan– aritzen diren saltoki indibidual edo kolektiboak, produktuak nahiz zerbitzuak saldu eta erakusteko duten azalera erabilgarria 1.000 metro koadrokoa baino gehiagokoa bada eta 2.500 metro koadrokoa baino gutxiagokoa.

Holako saltokiak irekitzeko eta handitzeko, obra lizentziak eta irekitzeko lizentziak beharko dira eta udalek horiek emateko jarritako baldintzak

bete beharko. Aurretik, hala ere, azterlan bat aurkeztu beharko da, non agertuko baita saltokiak hirigintzan izanen duen eragina, bai eta nola antolatuko diren trafikoa eta aparkalekuak. Azterlanean argi eta garbi frogatuko da saltokia jarriko den lurra egokia dela hirigintzaren aldetik, eta adieraziko da zer azalera izanen den aparkalekuetarako eta horietako zenbat izanen diren saltokiaren barrenean.

27. artikulua. “Deskontu larriko” saltokiak deritzenak.

“Deskontu larriko” saltokiak dira errotazio handiko produktu eta kontsumo arruntekoak txikizka saltzen dituzten saltokiak, baldin eta produktuak saltzeko azalera 500 metro koadrokoa baino gehiagokoa bada eta hurrengo ezaugarrietako hiru badituzte gutxienez.

- Autozerbitzu eran jarritako elikagaiak izatea nagusi.

- Eskaintako salgaien % 50 baino gehiago izan daitezela saltokian egiten den negozioaren kate titularraren merkataritzako marketakoak.

- Saltokiaren eskaintza guztira hartu eta erreferentzien kopurua mila baino gutxiago izan dadila.

- Saldutako salgaiak biltzeko poltsek berariazko prezioa izan dezatela.

Holako saltokiak irekitzeko eta handitzeko, obra lizentziak eta irekitzeko lizentziak beharko dira eta udalek horiek emateko jarritako baldintzak bete beharko.

Obra lizentziak eta irekitzeko lizentziak emateko ezartzen diren baldintzenpean egonen dira aipatutako saltokiak.

HIRUGARREN TITULUA **Merkataritza ordutegiak**

28. artikulua. Lanegunetako ordutegia.

Merkatari bakoitzak askatasunez erabakiko du zer ordutan ireki eta zer ordutan itxi lanegunetan – gehienez ere, 12 orduz ireki ahalko da –, bai eta zer egunetan irekiko duen; edonola ere, langileei lan-araubidean aitorturiko eskubideak errespetatu beharko dira.

29. artikulua. Jaiegunetako ordutegia.

Nafarroako Foru Komunitatean, igande eta jaiegunak, espresuki baimendurikoak salbu, ez dira baliodunak izanen merkataritza jarduerarako.

Urtero, Merkataritza Departamentuak, Nafarroako txikizkako merkataritzako kontseilu aholkumailari entzun ondoren, abenduaren 15aren

aurretik, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, zein igande eta jaiegun diren baliodunak ere adierazita; urtean, gutxienez, holako bost izanen dira, bereziki Eguberrietako kanpainarekin batera.

Merkataritza Departamentuak, foru agindu bidez, aldatu egiten ahalko du egutegi hori, baldin eta udalek, haien udalerrirako interesa duelako, arrazoitutako eskabidea aurkezten badute bi hilabeteko aurrerapenez.

Udaletako osoko bilkurek bost jaiegun horietako batzuk aldatu egin ditzakete herriko jaietako egunekin, baldin eta azken horiek lan-egutegian badaude. Udalak, hilabeteko aurrerapenez, erabakia jakinaraziko dio merkataritza arloko dagoen zuzendaritza nagusiari. Udal-administrazioak aldaketaren berri emanen du, herriko merkataritza eta kontsumitzaile guztiak jakinaren gainean egon daitezten.

Jaiegun bakoitzean noiz ireki eta noiz itxi merkataritza erabakiko du askatasunez; gehienez ere, eguneari hamabi orduz irekitzen ahalko da.

30. artikulua. Ordutegiei buruzko informazioa.

Saltoki guztietan, erraz ikusteko moduan jarri beharko da saltokiaren egutegia eta ordutegia, hala kanpoan nola barrenean, eta itxita dagoenean ere ikusteko moduan.

31. artikulua. Ordutegi askatasuna.

Saltokiak zein egunetan eta zer ordutan irekitzen dituzten erabakitze askatasun osoa izanen dute hurrengo jarduerak berariaz egiten dituztenek:

- Ogi salmenta.

- Prentsa salmenta.

- Geltokietako saltokiak, bai eta lurreko eta aireko garraibideetan ezarritakoak ere.

Merkataritza lokalek askatasuna izanen dute, baldin eta erakusketak egiteko bada edota produktu berri bat ateratzeko merkataritza ospakizun bat; betiere, ezin izanen da ezer saldu, eta, noiz eginen den, gutxienez hilabete lehenago jakinaraziko zaio ospakizunez arduratzen den departamentuari.

32. artikulua. Produktu kulturalak eta turistikoak besterik saltzen ez dituzten saltokiak.

Saltokiak zein egunetan eta zer ordutan irekitzen dituzten erabakitze askatasun osoa izanen dute produktu kulturalak eta turistikoak besterik saltzen ez dituzten saltokiak, hala museoetan, kultur erakusketetan, erakustaldietarako lokaletan

eta abarretan daudenek, nola horietatik kanpo daudenek.

Produktu kulturalak dira helburu dutenak giza ezagutzak landu, garatu eta sorraraztea, bai eta ahalmen intelektualak erabiltzea ere. Merkataritza Departamentuak eginen du, foru agindu bidez, produktu kulturalen zerrenda.

LAUGARREN TITULUA

Txikizkako merkatarien betebeharrak

33. artikulua. Betebehar orokorrak.

Txikizkako merkatariek hurrengo betebeharrak izanen dituzte:

- Orokorrean, zer salgai eskaintzen dituzten, horiei dagozkien arauak. Bereziki bete behar dituzte produktuen osagaiei buruzko arauak, etiketazeari buruzkoak, segurtasunari dagozkionak, bai eta, halaber, zer jarduera duten, merkataritza sektore horretako arau bereziak; saltokitik kendu egin beharko dituzte arau horiek betetzen ez dituzten ondasunak.

- Administrazio eskudunaren aurrean frogatu beharko dute badituztela beharrezko baimen eta lizentzia guztiak.

- Subjektu pasibo diren tributu guztiak ordainduta izatea.

- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babeserako arauak betetzea.

34. artikulua. Kontsumitzaileekiko oinarrizko betebeharrak.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako arau orokorren eta erkidegokoen arabera, eta horien aplikazioa eragotzi gabe, txikizkako merkatariek hurrengoak bete beharko dituzte:

- Salgaien ondoan publikoarentzako salmentaprezioa erakutsiko dituzte.

- Eginiko eragiketaren faktura, ordainagiria edo frogagiriren bat emanen dute, banakatua hala behar izanez gero, non eta kontsumitzaileak ez dion espresuki hori jasotzeari uko egiten.

- Erreklamazio-orriak izanen dituzte kontsumitzaileen eskura.

- Luzarorako diren produktuak saltzen dituztenean, berme-orria emanen dute.

- Eskaintza bereziak egitean, ez dute bidegabeko publizitaterik erabiliko, publizitate nahasgarria bereziki.

- Kontsumitzailearekin kontratua eginen dute eta ez dute abusuzko klausularik erabiliko.

- Salgai seguruak merkaturatuko dituzte, eta laguntza teknikoa eskainiko duen zerbitzu egokia ere izanen dute.

35. artikulua. Prezioak erakustea.

Prezioak salgai dauden produktu guztietan agertu beharko du.

Prezioak zuzenean adierazi beharko dira, salgaien bertan edo haren ondoan; prezioak irakur erraza beharko du, tamaina egokiko letra eta zenbaki argiz adierazia; prezioak zehatza beharko du, eta debekatuta egonen da prezioak jakiteko kalkulu aritmetikoak egin behar izatea, non eta ez diren deskontu erraz batzuk, adierazitako prezioa oinarri hartuta; halaber, prezioak osoa izan beharko du, dagozkion garestitzeak eta deskontuak sartuta dituela, bai eta kontsumitzailearen gainekoak diren tributuak ere.

BOSGARREN TITULUA

Eskaintza bereziak

I. KAPITULUA

Xedapen komunak

36. artikulua. Kontzeptua.

Eskaintza bereziko salmenta da txikizkako merkatariek egiten duen jarduera, zeinaren bitartez azken buruko kontsumitzaileari baldintza multzo hobea eskaintzen baitio, eta, beraz, azken horrek eskaintza bereziko salgaiak lehen baino merkeago eros baititzake, edo bestelako abantaila batzuk izan.

Eskaintza bereziko salmentaren aurretik behar adinako informazioa eman beharko da; hurrengoak argi agertu beharko dira:

- Eskaintza bereziko produktua edo produktuak.

- Salmentaren baldintzak.

- Eskaintza bereziaren epea; gutxienez, elkarren segidako bi egunekoak izanen da, eta, gehienez, hogeitamar egunekoak.

- Merkatariek izakin nahikoa beharko du eskaintzari aurre egiteko.

37. artikulua. Aurretik inbentarioan egoteko beharra.

Eskaintza berezi bat egiteko, eskainitako salgaiak merkatariazen izakinetan egondakoak behar dute; ezin dira salgaiak eskuratu eskaintza bereziak egiteko helburuarekin soilik, non eta ez diren produktu berriak ateratzeko eskaintzak. Hori guz-

tia, hala ere, ez da eragozpen izanen saldoak besterik saltzen ez dituzten saltokiak izateko.

38. artikulua. Ordainbideak.

Edozein eskaintza edo salmenta berezi egiten duen merkataria adierazi egin beharko dio kontsumitzaileari zein ordainbide erabiltzen ahal dituen eragiketean, eta hori saltokiaren kanpotik ikus daitekeen publizitate orokor gisa jarriko du.

39. artikulua. Eskaintza berezien iraupena.

Eskaintza berezi orotan edo eskaintza bereziko salmentaren publizitatea egiten den guztietan, merkataria, betiere, kontsumitzaileen eskaria asetzeko adina izakin beharko du, non eta azken salmentak ez diren.

Edonola ere, ulertuko da eskaintza bereziak ez duela eskaria asetzen baldin eta eskaintza bereziko salgaiak ez badira nahikoa merkataritza egun oso bateko eskaria asetzeko; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen merkealdien iraupenari buruz ezarritakoa aplikatzeko.

Produktuekin batera opariak ematen direnean, enbasean eskaintza berezi horren iraupena adierazi beharko da.

Aurreko kasuan, fabrikatzaileak edo merkataria, dagokionak, oparia eman beharko dio kontsumitzaileari, baldin eta horretarako eskubidea produktuak salgai zeudenean eskuratu bazuen, nahiz eta eskaintza berezia iraungita izan.

Aurreko arauz kanpo, eta merkealdietarako ezarritako arauz kanpo, salmenta berezian ez da beharrezkoa izanen iraupena adieraztea.

40. artikulua. Eskaintza bereziko salgaiak.

Merkataria ezin izanen du mugatu erosle bakoitzak eskaintza bereziko produktuen edo produktuaren zenbat ale eros ditzakeen.

Merkataria, asko saltzen dela ikusita ere, prezioa ezin izanen du aldatu.

Eskaintza nahikoa ez denean eskaria asetzeko, ezin izanen da erosleak baztertzeko irizpiderik ezarri.

Eskaintza bereziek inbentarioaren erdia hartzen ez badute, ezin izanen da iragarri neurri orokorra dela.

Eskaintza bereziko salgaiak argi eta garbi berezi beharko dira beste salgaietatik, bai eta saltokian batera izan daitezkeen bestelako eskaintza berezietatik ere.

41. artikulua. Prezio bikoitza.

Eskaintza berezi orotan eta publizitatea egiten den guztietan, produktu batek prezioan duen aldea mezu erakargarri gisa helarazten bazaio kontsumitzaileari, merkataria produktu bakoitzean ezarri beharko du zer prezio zuen horrek lehen eta zer prezio orain.

II. KAPITULUA

Motak

42. artikulua. Merkealdiko salmenta

Merkealdiko salmentatzat joko da jendeari saldu aurretik finkatutako prezioa baino merkeago eskaintzen zaizkion salgaien salmenta zein ohiko prezioa merkatzea dakarten baldintza berezietan egiten dena.

Merkealdiko salmenta urtean bi denboralditan soilik egin ahalko da: bata, urte hasieran, eta, bestea, uda inguruan, ohiturari eta salmenta handieneko epeei jarraikiz; gutxienez ere astebetekoa izanen da eta gehienez ere bi hilabetekoa. Denboraldi bakoitza hasteko eta bukatzeko egunak Nafarroako Gobernuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak ezarriko ditu foru agindu bidez. Merkataria bakoitzak foru aginduko irizpideei jarraikiz hautatzen dituen merkealdi egunak saltoki bakoitzaren kanpoaldean jarri beharko dira, jendeak saltokia itxita dagoenean ere ikusteko moduan.

Eskaintza bereziak ez dira merkealdi gisa aurkeztu ahal izanen baldin eta ez badira gutxienez ere dauden salgai guztietatik erdiak prezio murriztuarekin eskaintzen. Merkealdiko eskaintzak ez baditu salgai guztiak hartzen, merkatu direnak behar bezala identifikatu eta besteetatik bereiziko dira.

Ezin izanen dira merkealdian eskaini:

- Salgai zaharkituak; horrek ez du eragotziko saltokian bertan horiek saldo gisa saltzea.
- Merkealdia hasi aurreko hilabetean saltokiak bere ohiko eskaintzan salgai izan ez dituenak.
- Merkealdia hasi aurreko hilabetean edozein eskaintza motatan salgai jarri direnak.
- Hondatuta daudenak.

43. artikulua. Saldoak

Saldoko salmentatzat joko da hondatuta daudelako, erabiltzen ez direlako edo zaharkituta daudelako merkatuan duten balioa baino merkeago eskaintzea jendeari salgaiak. Salmenta mota hori nahitaz iragarri beharko da izen horrekin edo, bestela, "hondarren salmenta" izenarekin.

Saldo gisa eskaintzen diren salgaiak merkataritza jarduera horri hasiera eman baino sei hilabete lehenagotik izan beharko dute merkatariazenak, salmenta sistema horretan aritzen diren saltokiak alde batera utzita.

Merkatariak espresuki identifikatu beharko du salgai akastun eta hondatuen eskaintza.

Merkatari orok modu iraunkorren eskaini ahalko ditu bere salgaiak saldo gisa baldin eta gainontzeko salgaietatik eta eskaintzetatik behar bezala bereizita badaude.

Saldoetara soilik eta modu iraunkorren dedikatzen diren saltokiek argi eta garbi adierazi beharko dute hori kanpoaldean. Saltoki horiek soilik saldu ahalko dituzte saldo gisa besteen salgaiak eta saldo gisa saltzeko berariaz erositako salgaiak.

44. artikulua. Azken-salmentak

Azken-salmenten araubidea Txikizkako merkataritza arautzen duen 7/1996 Legeko 30 eta 31. artikuluek ezartzen dute. Halere:

Enpresa bat zenbait saltokiren titularra bada, saltoki horietan guztietan gertatu beharko da merkataritza jardueraren etenaldi osoa edo zatizkoa. Salmenta gune bakar baten etenaldi osoa edo zatizkoa etenaldi oso edo zatizkotzat barik lokal aldatetatzat joko da.

Munta handiko obrak egiteko azken-salmentak soilik abiatu ahalko dira horretarako lokala itxi behar baldin bada.

Salgaien azken-salmenta saltzen ohi zen lokal berean zein hari atxikitakoetan egin behar da, lokalaren berehalako itxierako eta ezinbesteko kasuetan salbu.

Azken-salmenta egiten duen merkataria haren berri eman beharko dio Nafarroako Gobernuko Merkataritza Departamentuari azken-salmenta egiazki hasi baino hamar egun lehenago, eta aurreikusitako iraupena, eskainitako salgaiak eta azken-salmentaren zergatia azalduko ditu. Jakinarazpen horren kopia jendaurrean jarri beharko da.

Merkatariak, horretarako bidezko arrazoirik badu, hilabeteko luzapena eskatu ahalko dio Merkataritza Departamentuari. Eskabidea erregistroan sartu eta hamabost egun iraganik berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera onartutzat joko da.

45. artikulua. Salmenta opariduna

Salmenta opariduntzat joko da merkataria erosiaren beste produktu edo zerbitzu gehigarri bat

eskaintzea edo ematea, prezio oso murriztuan zein doan, zuzenean zein zozketa edo lehiaketa batean parte hartuz, eskaintza bereziko produktu horien salmenta sustatzearen.

Sustatzen diren zerbitzu eta objektuen kalitatea geroago salmenta arruntaren bidez emanen diren bera izanen da, eta debekatuta dago prezioa igotzea salmenta opariduneko eskaintzak dirauen bitartean.

Produktuaren ontzian edo bilgarrian jasota agertuko dira opariak emateko betebeharrari aurre egiteko merkataria duen izakin kopurua eta lehiaketa, zozketa zein gisakoak arautzen dituzten oinarriak, eta bestela, behar bezalako zabalkundea emanen zaie eta ezin izanen dira aldatu eskaintzak dirauen bitartean.

Jokoari buruzko legeria bete beharko du zozketa eta lehiaketa orok baldin eta parte-hartzaileak hasierako ordainketa egin behar badu, salbu eta zozketa edo lehiaketako partizipazio edo baleak produktuak erostean emandako opariak badira.

Debekatuta dago oparia jasotzeko baldintza izatea beste edozein produktu edo zerbitzu erostea. Beti ere, legerian kontsumitzaileentzako ezarritako eskubideak eta interesak errespetatuko dira.

SEIGARREN TITULUA **Salmenta bereziak**

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

46. artikulua. Kontzeptua

Foru lege honen ondorioetarako, salmenta berezi dira urrutiko salmenta, herriz herrikoa, automatikoa eta enkante publikokoa.

Titulu honetan arautzen ez denetan, Txikizkako merkataritza arautzen duen 7/1996 Legeko III. Tituluari jarraikiko zaio, honen osagarri baita.

47. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroa

Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroa sortzen da, merkataritza alorreko eskumena duen Zuzendaritza Nagusiaren menpeko izanen dena. Izaera publiko eta administratiboa izanen du, eta honako atalak:

- Urrutiko salmentako merkataria
- Herriz herriko salmentako merkataria

- Salmenta automatikoko merkatariak
- Enkante publikoko salmentako merkatariak

Erregistro horrek baliabide tekniko eta informetiko egokiak izanen ditu, legeek halako baliabideak erabiltzeko eta industria- zein merkataritza-sekretuak babestutako arloei buruzko dokumentuak eskuratzeko jartzen dituzten mugekin.

Estatuak zein gainontzeko autonomia erkidegoek antolatutako gisa bereko edo antzekoekin koordinatuta egon beharko du erregistroak, eta haiekin lankidetzan aritzeko betebeharrak berezia izanen du.

48. artikulua. Etxez etxeko salmenta

Etxez etxeko salmenta da saltzailearen saltokia ez den etxebizitza pribatuetan, aisia zein bilera tokietan, lantokietan eta antzekoetan egiten dena.

Mota horretako salmentaren publizitateak –kontsumitzaileari eman beharrekoa– ondokoak jasoko ditu:

- a) Enpresaren identifikazioa eta helbidea.
- b) Salmenta mota hori egin ahal izateko baimen zenbakia.
- c) Merkaturaren zalantza izpirik gabe produktua edo zerbitzua identifikatzen uzten duten oinarriko datuak.
- d) Prezioa, ordaintzeko modua eta baldintzak eta bidaltzeko gastuak eta epeak.

Ez dira kontzeptu horren barruan sartuko beste salmenta mota baten bidez erosi eta etxean jasotzen diren salgaiak.

49. artikulua. Aldizko salmenta

Aldizko salmentatzat joko da hilabete baino gutxiagoko epean jarduera horretarako merkatari-tzako izaera orokorra ez duten saltokietan herriz herriko salmenta izan gabe egiten dena.

Salmenta mota hori merkataritza arloko eskumena duen departamentuak baimendu beharko du.

Eskabidean ondokoak zehaztuko dira:

- a) Saltzailearen identifikazioa.
- b) Produktuen ezaugarrien deskribapena.
- c) Baldintza fiskal eta administratiboak bete izana.
- d) Lokala erabiltzeko titulua.

Eskabidean azaldutakoak justifikatzeko dokumentazioa ere erantsiko da.

Aldizko salmenta legeria berariazkoari atxiki gabeko enkantean egiten bada –enkantea da gainontzeko balizko erosleek baino prezio altuagoa eskaini duelako produktu bat norbaiti esleitzea–, produktua esleitzeko gutxienezko baldintzak zehazteko exijituko da.

50. artikulua. Baimena.

Salmenta horiek alde aurreko baimena beharko dute, Merkataritza Departamentuak emana, eta halakoetan aritzen diren merkatariak izena emanda izan beharko dute Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroan.

Aurreko lerrokadako zerrendako edozein salmenta motatan jardun nahi duten enpresek eskaera egin beharko diote Merkataritza Departamentuari, oro har ondokoak kreditatuz:

- Enpresaburuaren identifikazioa, eta halakorik egina badu, merkataritzako erregistroko inskripzioa eta identifikazio fiskala.
- Garatuko den jarduerari buruzko txostena, eskaintzen dituen zerbitzu eta produktuen zerrenda, jarduteko eremua eta Nafarroako saltokiak.
- Tributu arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituelako ziurtagiria.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda egotea eta hura ordaindu izana.
- Erregelamendu bidez produktu zein zerbitzu bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzea eta salmenta mota bakoitza egin ahal izateko exijitzen diren baimen osagarriak edukitzea.
- Enkante publikoko salmenta egiten bada, jabe eta lizitatzailleekiko harremanean enkantea egiten duen enpresak ezartzen dituen baldintza orokorrak.

Baimena emantzat joko da baldin eta eskaera erregistroan sartu zenetik edo eskatutako dokumentazioa osatu zenetik hasita hilabeteko epean berariazko ebazpena eman ez bada.

Eskatu den baimena soilik ukatu ahalko da baldin eta arestian azaldutako baldintzetako bat kreditatzen ez bada.

Baimena errebokatu ahalko da baldin eta enpresaren jarduera eteten bada edo horretarako baldintzak betetzen ez badira. Salmenta berezietan aritzeko baimena duten merkatariak baimen eskaeran emandako datuei buruzko aldaketa oro jakinarazi beharko diote administrazioari.

Salmenta berezietako baimenak zein haien gaineko aldaketak eta errebokatzeak ofizios erregistratuko dira Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroan. Baimena erregistratzean ondoko datuak jasoko dira: enpresaren identifikazioa, salmenta mota, merkataritzako eskaintza osatzen duten produktu eta zerbitzuak, jarduteko eremua eta kontsumitzaileek erreklamazioak aurkezteko tokia.

Merkatariek baimenaren kopia bat izan behar dute kontsumitzaileen eskura, eta erakutsi egin behar dute baldin eta salmenta bi parteak aldi berean bertan daudela egiten bada.

51. artikulua. Kate edo piramide gisako salmenta

Piramide edo kate gisako salmentatzat joko da kontsumitzaile edo erabiltzaileei produktuak edo zerbitzuak prezio merkean edo doan eskaintzea; horren ordainetan, kontsumitzaile edo erabiltzaileek, zuzenean nahiz zeharka, beste bezero batzuk edo halako salmenta-kopurua lortu behar izanen dute.

Debekatu egiten da kontsumitzaile nahiz erabiltzaileek kate edo piramide gisako salmentetan bitartekari izatea.

52. artikulua. Sari edo opariak banatzeko zozketak

Merkatari batek edozein kontsumitzaile edo erabiltzaileari halako zozketa dela-eta sari edo opariren bat dagokiola esaten dionean, ezin izanen dio, ez zuzenean ez eta zeharka ere, horiek emateko inolako zerbitzu edo produkturik erosarazi.

ZAZPIGARREN TITULUA

Merkataritza lehiaketak

53. artikulua. Merkataritza lehiaketak. Kontzeptua

Merkataritza lehiaketa izena hartzen dute helburuok dituzten merkataritza izaerazko agerpenek: ondasun eta/edo zerbitzuen erakusketa, hedapena eta merkataritza sustapena, merkataritza eskualdaketa ondorioztat izan dezaketen eskaintza eta eskaeraren hurbilpena erraztea eta merkatuaren gardentasuna bultzatzea. Merkataritza lehiaketen gaineko eskumena duen departamentuak aldeztu behar dira baimendurik, zuzeneko salmentak egin ahal izanen dira lehiaketen barruan.

Aurreko zenbakian azaldutako merkataritza lehiaketek "azoka" izena hartuko dute aldizka egiten direnean, eta "erakusketa" izena halako tarte jakinik ez dutenean.

Merkataritza lehiaketen sailkapena erregelamendu bidez zehaztuko da, erakutsi beharreko ondasun eta/edo zerbitzuen jatorriaren eta ezauzgarrien arabera.

54. artikulua. Merkataritza lehiaketa ofizialak

Merkataritza lehiaketak ofizialtzat hartuko dira gai horretan eskumena duen departamentuak antolaketa eta ospakizuna baimentzen dituztenean, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzak aurretiaz bete badira.

"Azoka ofiziala", "erakustazoka ofiziala", "azoka ofizial monografikoa", "areto ofizial monografikoa" edo antzeko izenak, eremuari erreferentziarik egiten ote dioten kontuan izan gabe, artikuluhonetako aurreko zenbakian aipatzen diren merkataritza agerpenetan bakarrik erabili ahal izanen dira.

Merkataritza lehiaketen antolakuntza eta ospakizuna bera, erakutsi beharreko ondasun eta/edo zerbitzuen jatorria dela-eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldea bezainbesteko eremua edo zabalagoa hartzen dutenean, lege honen 48 bis 6. artikuluan zehaztutako azoka erakundeen esku geratuko dira, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

Merkataritza lehiaketa bakoitzak lantalde bat izanen du antolatzaileei agerpenaren garapenerako eredu nagusiak adierazteko. Lantaldeko kideen izendapena merkataritza lehiaketa bakoitzaren erakunde antolatzailearen eskumen izanen da eta horrek merkataritza lehiaketaren eskumena duen departamentuari jakinarazi behar dion; departamentuak, aldi berean, lantalderako ordezkari bat edo batzuk izendatu ahal izanen ditu. Lantaldearen osaketa, eskumenak eta jarduera erregelamendu bidez zehaztuko dira.

55. artikulua. Merkataritza lehiaketen batzordea

Nafarroako Gobernuak, arlo horretan eskumena duen departamentuak hala proposatuta, Nafarroako merkataritza lehiaketen batzordea osatuko du, departamentuari atxikia, erakundearen eta gizarte- eta ekonomia-eragilearen topagune izan dadin. Batzorde horren eskumena proposamenak egin eta azokei buruzko politika gaitan aholkuak ematea da.

Batzordearen zeregin, osaketa eta jardunbidea erregelamendu bidez zehaztuko dira. Bertan parte hartuko dute Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Merkataritza Ganberak, enpresaburuen elkarteak eta Foru Komunitatean egiten diren merkataritza agerral-

dietan inplikaziorik handiena duten ekonomia sektoreek.

56. artikulua. Merkataritza lehiaketan antolatzaileak

Titulu honek aipatzen dituen merkataritza lehiaketak ondorengoek antolatu ahal izanen dituzte:

- a) Azoka erakundeek.
- b) Beste erakunde antolatzaile publiko edo pribatuak.

Azoka erakundeak, berriazko nortasun juridikoa duten irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, eta haien helburua merkataritza lehiaketak sustatu eta antolatzea izanen da.

Azoka erakundeak beren estatutuek arautuko dituzte, eta antolaketa, administrazio, eraketa eta desegiteari buruzko guztia ere arautuko dute, bai eta haien gobernurako organoen eskumenak ere; organo horietan ordezkaturik egonen dira Nafarroako Gobernua, erakunde dagoen tokiko udala eta Merkataritza Ganbera, eta horrek ez du eragotziko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek ere parte hartzea. Azoka erakundeen estatutuak merkataritza lehiaketan gaitan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuak onetsi beharko ditu.

Eraketa egokirako eta azoka erakunde gisa jarduteko baldintza eta betekizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

57. artikulua. Merkataritza lehiaketan erregistro ofiziala

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko merkataritza lehiaketan erregistro ofiziala sortuko du, gai horretako eskumena duen departamentuaren menpean egonen dena.

Merkataritza lehiaketan erregistro ofizialak bi atal izanen ditu. Lehen atalean azoka erakundeak eta merkataritza lehiaketa ofizialen antolaketa helburutzat duten gainontzeko erakunde antolatzaileek eman beharko dute izena, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzak bete ondoren.

Bigarren atalean, baimendutako eta gai horretan eskumena duen departamentuak ofizialtzat hartutako merkataritza lehiaketek emanen dute izena, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintza eta epeak bete ondoren. Izena ematearen ondorioz, lehiaketa Nafarroako merkataritza lehiaketan egutegi ofizialean sartu ahal izanen da. Atal honetan emanen dute izena, halaber, eta egutegi ofizialean sartuko, dagokion agintaritzak nazioartekotzat hartzen dituen merkataritza lehiaketak.

58. artikulua. Dirulaguntzak eta bestelakoak

Merkataritza lehiaketak egiteko dirulaguntzak edo bestelako laguntza publikoak lortu ahal izateko, aurreko artikuluan adierazitako erregistroaren bigarren atalean izena emanda egotea eskatuko da.

ZORTZIGARREN TITULUA **Nafarroako txikizkako merkataritzako kontseilu aholku-emailea**

59. artikulua. Kontseiluaren eraketa eta osaketa

Nafarroako txikizkako merkataritzako kontseilu aholku-emailea sortuko da, Nafarroako Foru Komunitatean arlo horretan aholku emateko organo eskuduna izan dadin. Haren osaketa, antolamendua eta funtzionamendua erregelamendu bidez garatuko dira.

Kontseiluak ondoko eginkizunak izanen ditu:

- Merkataritza arloko edozein administrazio eskudunek egiten dizkion txosten eta aholku eskeei erantzutea.
- Merkataritza sektorea dela-eta Nafarroako Gobernuak prestatzen dituen lege proiektuei eta gainontzeko xedapenei buruz iritzia ematea.
- Foru Komunitateko merkataritzaren egoerari buruzko txostena egitea urtero.
- Erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein.

Kontseiluan behar bezala ordezkaturik egonen dira sektorean ordezkariak handiena duten Foru Komunitateko gizarte- eta ekonomia-eragileak, bai eta kontsumitzaileen elkarteak eta administrazio publiko eskudunak ere.

Nafarroako txikizkako merkataritzako kontseilu aholku-emailea Nafarroako Gobernuko Merkataritza Departamentuari atxikiko zaio.

BEDERATZIGARREN TITULUA **Zehapen araubidea**

I. KAPITULUA **Eskumena eta prozedura**

60. artikulua. Eskumena

Merkataritza alorreko eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuak foru lege honetan xedatuarekin bat etorri abiaraziko ditu zehapen espedienteak.

Merkataritza alorreko eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuari dagokio arau-

hauste arinak direla-eta zehapenak ezartzea; berriz, Nafarroako Gobernuari dagokio arau-hauste larri eta oso larriak direla-eta zehapenak ezartzea.

61. artikulua. Prozedura

Zehapen espedientea ofizios zein salaketa baten bidez abiaraziko da, edo lurraldearen antolamendu alorreko eskumena duen departamentuak eskatuta, baldin eta arau-haustea haren esparruan eragina izan badezake.

Zehapen espedienteak, gutxienez ere, arau-haustearen inguruabarrak zehazten dituen txostena jaso beharko du, lortu ahal izan diren froga guztiekin batera. Arau-hausteak lurraldearen antolamendu alorreko eskumena duen departamentuaren esparruan eragina izan badezake, haren txostena nahitaezkoa eta loteslea izanen da.

Nahitaezko txosten hori eskatu denetik hiru hilabete iragan eta merkataritza alorreko eskumena duen departamentuak hura jaso ez badu, departamentuak zehapen espedientea ebatzi ahal izanen du.

Prozedura burutzeko gehieneko epea sei hila-betekoa izanen da.

62. artikulua. Prozedura penalak

Foru lege honetan aipatzen diren arau-haustek lege-hauste ere izan badaitezke, merkataritza alorreko eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak horren berri emanen dio Ministerio Fiskalari; halaber, debekatutako lehia-jarduerak izan daitezkeela uste baldin bada, Lehiaren Defentsako Auzitegiari jakinaraziko zaio, Lehiaren defentsari buruzko 16/1989 Legearekin bat etorritik.

Merkataritzako alorreko eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak, kasua edozein dela ere, bertan behera utziko du administrazio espedientearen tramitazioa, harik eta instantzia haiek kasua artxibatu edo ebazpen irmoa eman arte, eta eten eginen da administrazio zehapenaren epea edo, zehapen ebazpena eman baldin bada, erabaki den zehapenarena.

Zehapen prozedura administratiboa bertan behera utziko da baldin eta Lehiaren Defentsako Auzitegian kausa penal edo prozedurazkoa abiarazi dela baldin badaki merkataritzako alorreko eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak. Beti ere, mantendu eginen dira hartu diren aseguru neurriak, aginte eskudunak haiek ordezkatzan dituzten beste neurri batzuk hartu arte.

63. artikulua. Erantzukizun administratiboa

Erantzukizun administratiboa txikizkako merkataritzan diharduten saltokien titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoei dagokie lege honetan ezarritako arau-hausteak direla-eta, baldin eta arau-hausteak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean gertatu badira.

II. KAPITULUA

Administrazio arau-hausteak

64. artikulua. Definizioa

Merkataritza alorreko administrazio arau-hauste dira Txikizkako merkataritza arautzen duen urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean zehaztutako egite eta ez-egiteak, horietatik eratoritzen ahal diren erantzukizun zibil edo penalak ezertan galaz gabe.

Administrazioak duen zehatzeko ahala ezartzen duten oinarriko printzipio eta arauak –Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluan jasotzen baitira– aplikatuko dira.

65. artikulua. Arau-hausteen sailkapen eta tipifikazioa

Urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean ezarritako tipifikazioari jarraikiz, arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Arau-hauste izanen dira orobat ondoren zehazten direnak.

Arau-hauste arintzat joko dira:

Uko edo aurka egitea agintariak eta haien kudeatzaileek ikuskatze lanak gauzatzeko eskatzen dituzten datuak emateari eta informazioa desegokia edo osoa ez dena ematea.

Merkataritzako lizentzia berariazkoaren baldintzak urratzea dakarten jarduerak garatzea, arau-hauste larri edo oso larritzat jotzen ez badira.

Saltokia ireki eta ixteko ordutegiari buruz jendeari informatzeko betebeharrak ez betetzea.

Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezietan txikizkako merkatarien erregistroarekiko betebeharrak ez betetzea, arau-hauste larritzat jotzen ez bada.

Salmentak sustatu eta prezioak adierazteko baliabideei buruzko arauak ez betetzea.

Oro har, foru lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat jotzen ez badira.

Arau-hauste larritzat joko dira:

Uko edo aurka egitea agintariek eta haien kudeatzaileek ikuskatze lanak gauzatzeko eta merkataritza kudeatzeko eskatzen dituzten datuak emateari eta informazioa desegokia edo osoa ez dena ematea, bortizkeria fisikoa zein berbazkoa edo beste edozein presiobide erabilita egiten bada.

Arauk hausten dituzten jarduerak eteteko errekerimendua ez betetzea.

Saltoki handi bateko merkataritza-azalera garbia handitzea horretarako baimenik izan gabe.

Saltoki handiak jarri diren eremuan lurraldearen eta ekologiaren antolamenduari kalte egitea.

Saltokia irekitzea igandean edo merkataritzako jarduerak egiteko baimenik ez dagoen jai egunean, foru lege honen 31. artikuluko salbuespenetan ez dauden egun horietako batean.

“Salmenta opariduna”, “merkealdiko salmenta”, “azken-salmentak” edo “saldoak” iragarki edo izenarekin saltzea, horiei legeak emandako ezaugarriak bete gabe.

Salmenta oparidunean, merkealdikoan edo azken-salmentan eskainitako objektuek kalteren bat –merkatuan duten balioa murriztuko duena– izatea.

Eskaintzaren publizitatea faltsutzea eskaintza bereziko salmentetan.

Salmenta opariduneko eskaintzak dirauen epearen barruan produktuaren prezioa edo kalitatea aldatzea.

Sustatze-opariak emateari buruz ezarritako araubidea ez betetzea.

Foru lege honetan ezarritako erregistroetan izena emateko betebeharra ez betetzea.

Arau-hauste oso larritzat joko dira:

Urtebeteren buruan bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

Saltoki handi bat instalatu, handitu edo lekuz aldatzeko merkataritzako lizentzia berariazkoa lortu gabe eraikitzeko ekinak hastea, udalaren obra lizentzia izan arren.

Baimenik ez duten saltokietan merkataritzan jardutea, baldin eta lege honen arabera baimena nahitaezkoa bada.

Saltoki handiak jarri diren eremuan lurraldearen eta ekologiaren antolamenduari kalte handi eta konponezinak egitea.

66. artikulua. Arau-hausteez preskribitzea

Foru lege honetan araututako zehapenek sei hilabeteren buruan preskribituko dute arau-hauste arinak badira, bi urteren buruan larriak badira eta hiru urteren buruan oso larriak badira.

Zehatutako ekintza egin denetik edo, arau-hauste jarraiak izanez gero, horiek egiten bukatu denetik zenbatuko dira epeak.

III. KAPITULUA **Isunak**

67. artikulua. Isunen zenbatekoa

Foru lege honetan eta urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean xedatuari jarraikiz, arau-haustek zehatuko dira ohartarazpenaren bidez ondoko mailaketaren arabera isunen bidez:

Arau-hauste arina bada, ohartarazpena edo 500.000 pezeta bitarteko isuna.

Arau-hauste larria bada, 500.001 pezetatik 2.500.000 pezetara bitarteko isuna.

Arau-hauste oso larria bada, 2.500.001 pezetatik 100.000.000 pezetara bitarteko isuna.

Aurreko idatz-zatietan zehaztutako zenbatekoak foru dekretu bidez gaurkotu ahalko dira, Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera, eta foru dekretu bidez ezarriko da, ezarri behar denean, zehapen ekonomikoen zenbateko baliokidea eurotan.

68. artikulua. Mailaketa

Zehapenak mailakatzeko kontuan hartuko dira arau-haustek gizartean duen eragina, arau-haustek merkaturaren nagusitasun egoera, eragindako kalteen izaera, ukitzen duen fakturazioaren bolumena, arau-haustearen borondatezkotasun eta intenzionalitate maila, lortutako irabazien zenbatekoa, ahalmen ekonomikoa eta araua hausten emandako denbora.

Isuna ez da izan merkataria arau-haustek ukitutako fakturazioaren ehuneko 5 baino gehiago arau-haustea arina izan bada, ehuneko 50 baino gehiago arau-haustea larria izan bada eta fakturazioaren bolumen osoa baino gehiago oso larria izan bada.

69. artikulua. Kautelazko neurriak

Baldin eta osasunarentzako arriskurik bada, erabilizaile eta kontsumitzaileen interes ekonomiko eta sozialak kaltetzeko arriskua larria bada, txikizkako merkataritza garatzeko eremuan lurraldearen eta ekologiaren antolamenduari kalte larriak eginez gero eta merkaturaren funtzionamendua dis-

tortsionatzeko arriskua badago, administrazioak, eman litekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzearren, ondoren zehazten diren kautelazko neurriak hartu ahalko ditu:

Faltsututako salgaiak, iruzurrezkoak eta bereizgarririk gabeak edo merkaturatzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak bahitzea.

Merkataritza jarduera etetea, akatsak zuzendu edo eskatutako baldintzak bete arte.

Derrigorrezko baimenak ez dituzten saltoki eta instalazioak behin-behineko ixtea, egoera horretan dauden bitartean.

Aipatutako behin-behineko neurriak hartzea merkataritza alorreko eskumena duen zuzendaritza nagusiari dagokio, eta erabaki arrazoituaren bidez eginen du.

70. artikulua. Zehapenak preskribitzea

Arau-hauste arinengatik ezarritako zehapenek sei hilabeteren buruan preskribituko dute, falta larriengatik ezarritakoek bi urteren buruan eta falta oso larriengatik ezarritakoek hiru urteren buruan.

Zehapen ebazpena irmo denetik aitzina zenbaituko da preskripzio epea.

X. TITULUA

Merkataritza txikiari laguntzeko neurriak

71. artikulua. Kontzeptua

Merkataritza txikiari laguntzeko neurritzat joko dira usadiozko merkataritza sustatzearren administrazio publikoek, edo merkatarien elkarteek, bultzatzen dituztenak.

72. artikulua. Helburuak

Aurreko artikuluan aipatutako jarduketek ondo helburuak izan behar dituzte –merkataritzako formulen arteko oreka bilatu, usadiozko merkataritza sektorearen eta haren lehiakortasuna mantendu, bultzatu eta modernizatzearaz gain–, lehia librea ezertan ere galarazi gabe:

1. Banaketako enpresa txiki eta ertainen ahalmen teknologikoa hobetzea.

2. Erosketa zentralen sorrera bultzatzea eta horiek zabaltzen laguntzea.

3. Saltoki txikiak denda-kate espezializatueta sar daitezten sustatzea, haiei marka-irudia ematearren.

4. Enpresa dibertsifikazioa eta, enpresa txikiaren bereizgarri den aldetik, bezeroarentzako arreta bultzatzea.

5. Kudeaketaren hobekuntza, modernizazio eta espezializazioa jotzeko tresnak izaten laguntzea.

Helburu horiek garatzearren, Nafarroako Gobernuak –gizarte, enpresa eta profesionalen erakundeekin ados jarrita– merkataritza txikiari laguntzeko plana prestatuko du, besteak beste, lege honetan jasotzen diren laguntza neurriak bilduko dituena.

73. artikulua. Laguntza neurriak

1. Nafarroako Gobernuak, egin beharreko erregelamendu bidezko garapena baliatuta, merkataritza sektorerako hedatuko ditu industria sektorerako dauden laguntzak, esaterako inbertsioa sustatu eta enplegua sortzekoak.

2. Nafarroako Gobernuak, sektoreko enpresa erakundeekin eta gizarte eragileekin bat, prestakuntza orokorreko plana prestatuko du, zeinaren bidez aurre egiten baitzaie langileak birziklatzeko zein lanerako prestatzeko beharrezkoak eta enpresa kudeaketa hobetzeko prestakuntza berariazkoa izateko beharrezkoak.

3. Nafarroako Gobernuak merkataritza txikiaren elkartegintza sustatzeko behar diren jarduerak egiten ditu.

4. Nafarroako Gobernuak, merkatarien elkarteekin lankidetzan, behar adina ekimen eta jarduera abiaraziko ditu sektoreak erraz eskura dezan Europa, nazio zein eskualde mailan diren baliabideei eta merkataritzako egiturak finantzatzeko ekimen eta programei buruzko informazio osoa.

XI. TITULUA

Handizkako merkataritza

74. artikulua. Kontzeptua

Handizkako merkataritzatzat edo handizkako merkataritza jardueratzat joko da, foru lege honen ondorioetarako, irabazi asmoarekin eta bere bazkide edo elkarkideei zerbitzu ematearren modu profesionalean egindako jarduerak –txikizkako merkatariei produktu natural zein prestatutakoak eta zerbitzuak eskaintzea alegia– garatzea, horiek lege honetan arautzen diren txikizkako merkataritzako jardueratzat edo gisakotzat jotzen ez badira.

75. artikulua. Handizkako merkataritza

Nafarroako Gobernuak handizkako merkataritzako saltokiei aplikatu beharreko arau berariazkoak eman behar ditu.

Lehen xedapen gehigarria

Foru lege honetan zein berau garatzeko erregelamenduetan arautzen diren merkataritza jarduera eta erregistro guztiak direla-eta, kontuan hartuko da beti ere Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan xedatua.

Bigarren xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/31/CE zuzentzararekin eta estatuko legeriarekin bat etorriz arautuko du merkataritza elektronikoa.

Lehen xedapen iragankorra

Foru lege hau ez zaie aplikatuko saltoki handiei baimena emateko espedientei baldin eta lurraldearen antolamendu eta merkataritza eremuetako behin betiko ebazpena foru lege honek indarra hartu baino lehen eman bada.

Merkataritza-lizentzia berariazkoa eskatzeko espedienteak foru lege honek indarra hartutakoan behin betikoz ebatzi gabe badaude, hemen ezarritakoarekin bat tramitatuko dira. Lege honek indarra hartzean dokumentazioa osatua duten eskaerei ez zaie tasa ordainaraziko.

Bigarren xedapen iragankorra

Foru lege honek indarra hartzean lege honetan ezartzen den erregistroetako batean izena eman beharra dakarren merkataritza jarduera batean jarduten badute, pertsona fisiko zein juridikoek urtebeteko epean eman beharko dute izena gehienez ere, izena emateko beharrezkoak diren dokumentuak eta datuak ezartzen dituen erregelamenduak indarra hartzen duenetik aitzina.

Hirugarren xedapen iragankorra

Foru lege honetan ezartzen diren azalerak gainditzen dituzten saltokiei foru lege honek indarra hartu baino lehen emandako merkataritza-lizentzia berariazkoek baliodunak izaten jarraituko dute. Halere, saltoki horiek handitu edo aldatu nahi badira, foru lege honetan ezarritakoa beteko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta bereziki Azalera handiko instalazioen ezarpena lurralde eta hirigintza aldetik arautzen duen maiatzaren 10eko

154/1993 Foru Dekretua eta Merkataritzako ordutegiak arautzen dituen abenduaren 18ko 378/2000 Foru Dekretua (156. NAO, 2000ko abenduaren 27koa).

**Azken xedapenak
Lehena**

Nafarroako Gobernuari eta kasuan kasuko departamentu eskudunari ahalmena ematen zaie lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapen eta egintzak eman ditzaten.

Bigarrena

Foru lege honetan aurreikusten ez denetan, Txikizkako merkataritza arautzen duen 7/1996 Legeari jarraikiko zaio, honen osagarri baita.

Hirugarrena

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

AURKIBIDEA**ZIOEN AZALPENA****LEHENBIZIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.****I. KAPITULUA. Objektua eta aplikazio eremua.**

1. artikulua. Objektua.
2. artikulua. Printzipio gidariak.
3. artikulua. Aplikazio eremua.

II. KAPITULUA. Txikizkako merkataritza.

4. artikulua. Kontzeptua.
5. artikulua. Aldi berean aritzea txikizkako merkataritzan eta handizkako ekoizpen edo banaketan.
6. artikulua. Kooperatibak eta antzeko forma juridikoak
7. artikulua. Merkataritzan aritzeko debekuak eta mugak.

III. KAPITULUA. Merkataria, sustatzailea eta operadorea.

8. artikulua. Merkataria.
9. artikulua. Sustatzailea.
10. artikulua. Merkataritzako operadorea.
11. artikulua. Sustatzaileen eta operadoreen eskubideak.
12. artikulua. Sustatzaileen eta operadoreen betebeharrak.

BIGARREN TITULUA. SALTOKIAK.**I. KAPITULUA. Saltokia.**

13. artikulua. Kontzeptu orokorra.

14. artikulua. Merkataritza-gunea.

15. artikulua. Merkataritza-parkea.

16. artikulua. Merkataritza-aldea.

II. KAPITULUA. Txikizkako saltoki handiak.

17. artikulua. Kontzeptua.

18. artikulua. Saltoki handirako lizentzia.

19. artikulua. Eskabidearen edukia eta beharrezkoak diren agiriak.

20. artikulua. Merkataritza-gune eta -parkeetarako lizentzien tramitazioa.

21. artikulua. Saltoki handi indibidualetarako lizentzien tramitazioa.

22. artikulua. Saltoki handirako merkataritza-lizentzia emateko irizpideak.

23. artikulua. Toki administrazioarekiko koordinazioa.

24. artikulua. Saltoki handirako merkataritza-lizentziaren indarraldia.

25. artikulua. Tasa.

III. KAPITULUA. Baimena behar duten beste saltoki batzuk.

26. artikulua. Azalera ertaineko txikizkako saltokiak.

27. artikulua. "Deskontu gogorreko" saltokiak deritzenak.

HIRUGARREN TITULUA. MERKATARITZA ORDUTEGIAK.

28. artikulua. Lanegunetako ordutegia.

29. artikulua. Jaiegunetako ordutegia.

30. artikulua. Ordutegiei buruzko informazioa.

31. artikulua. Ordutegi askatasuna.

32. artikulua. Produktu kulturalak eta turistikoak besterik saltzen ez dituzten saltokiak.

LAUGARREN TITULUA. TXIKIZKAKO MERKATARIEN BETEBEHARRAK.

33. artikulua. Betebehar orokorrak.

34. artikulua. Kontsumitzaileekiko oinarrizko betebeharrak.

35. artikulua. Prezioak erakustea.

BOSGARREN TITULUA. ESKAINTZA BEREZIAK**I. KAPITULUA. Xedapen komunak.**

36. artikulua. Kontzeptua.

37. artikulua. Aurretik inbentarioan egoteko beharra.

38. artikulua. Ordainbideak.

39. artikulua. Eskaintza berezien iraupena.

40. artikulua. Eskaintza bereziko salgaiak.

41. artikulua. Prezio bikoitza.

42. artikulua. Merkealdiko salmenta

43. artikulua. Saldoak

44. artikulua. Azken-salmentak

45. artikulua. Salmenta opariduna

SEIGARREN TITULUA. SALMENTA BEREZIAK**I. KAPITULUA. xedapen orokorrak**

46. artikulua. Kontzeptua

47. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko salmenta berezien txikizkako merkatarien erregistroa

48. artikulua. Etxez etxeko salmenta

49. artikulua. Aldizko salmenta

50. artikulua. Baimena.

51. artikulua. Kate edo piramide gisako salmenta

52. artikulua. Sari edo opariak banatzeko zozketak

ZAZPIGARREN TITULUA. MERKATARITZA LEHIAKETAK

53. artikulua. Merkataritza lehiaketak. Kontzeptua

54. artikulua. Merkataritza lehiaketa ofizialak

55. artikulua. Merkataritza lehiaketen batzordea

56. artikulua. Merkataritza lehiaketen antolatzaileak

57. artikulua. Merkataritza lehiaketen erregistro ofiziala

58. artikulua. Dirulaguntzak eta bestelakoak

ZORTZIGARREN TITULUA. NAFARROAKO TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

59. artikulua. Kontseiluaren eraketa eta osaketa

BEDERATZIGARREN TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA**I. KAPITULUA. Eskumena eta prozedura**

60. artikulua. Eskumena	71. artikulua. Kontzeptua
61. artikulua. Prozedura	72. artikulua. Helburuak
62. artikulua. Prozedura penalak	73. artikulua. Laguntza neurriak
63. artikulua. Erantzukizun administratiboa	XI. TITULUA. HANDIZKAKO MERKATARITZA
II. KAPITULUA. Administrazio arau-haustea	74. artikulua. Kontzeptua
64. artikulua. Definizioa	75. artikulua. Handizkako merkataritza
65. artikulua. Arau-hausteen sailkapen eta tipifikazioa	LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA
66. artikulua. Arau-hausteen preskribitza	BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA
III. KAPITULUA. Isunak	LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA
67. artikulua. Isunen zenbatekoa	BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA
68. artikulua. Mailaketa	HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA
69. artikulua. Kautelazko neurriak	AZKEN XEDAPENAK
70. artikulua. Zehapenak preskribitza	LEHENA
X. TITULUA. MERKATARITZA TXIKIARI LAGUNTZEKO NEURRIAK	BIGARRENA
	HIRUGARRENA

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarena, aholkularia izendatzeko

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak ondoko Erabakia hartu du:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 40. artikulua ezarritakoaren babesean,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Arartekoaren aholkulari izendatzea Enrique Mateos Sanz jauna, behin-behineko lan-

gile gisa. Izendapen honek 2001eko martxoaren 19tik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bigarrena. Izendapen honek sortuko dituen gastuak gastuen aurrekontu indarduneko 110 zenbakiko kontusailaren kargura ordainduko dira –“Behin-behineko langileen ordainsariak”.

Iruñean, 2001eko martxoaren 19an

Arartekoa: M.^a Jesús Aranda Lasheras

Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarena, aholkularia izendatzeko

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak ondoko Erabakia hartu du:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 40. artikulua ezarritakoaren babesean,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Arartekoaren aholkulari izendatzea Aurelio Romero Serrano jauna, behin-behineko

langile gisa. Izendapen honek 2001eko martxoaren 19tik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bigarrena. Izendapen honek sortuko dituen gastuak gastuen aurrekontu indarduneko 110 zenbakiko kontusailaren kargura ordainduko dira –“Behin-behineko langileen ordainsariak”.

Iruñean, 2001eko martxoaren 19an

Arartekoa: M.^a Jesús Aranda Lasheras

Erabakia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarena, idazkaria izendatzeko

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak ondoko Erabakia hartu du:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 40. artikulua ezarritakoaren babesean,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Arartekoaren idazkari izendatzea Luis Antonio Fernández Paredes jauna, behin-

behineko langile gisa. Izendapen honek 2001eko martxoaren 7tik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bigarrena. Izendapen honek sortuko dituen gastuak gastuen aurrekontu indarduneko 110 zenbakiko kontusailaren kargura ordainduko dira –“Behin-behineko langileen ordainsariak”.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Arartekoa: M.^a Jesús Aranda Lasheras

Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko laguntza teknikoa kontratatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko laguntza teknikoa kontratatzeko lehiaketa publikoa egitea erabaki zuen.

– Mota: lehiaketa publikoa.

– Kontratuaren xedea: Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko laguntza teknikoa kontratatzea.

– Egiteko epea: 2001eko urriaren 15a.

– Aurrekontua: 5.000.000 pezeta (BEZa barne).

– Aurkeztu beharreko dokumentazioa: klausula administratibo partikularren pleguan adierazten dena. Dokumentuek jatorrizkoak izan beharko dute, edo, bestela, notarioak zein administrazioak konpultsatutako kopiak.

– Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, hogeita zazpigarren

egun naturaleko eguerdiko 12ak arte. Azken egun hori baliogabea bada, epea hurrengo egun baliogabera arte luzatuko da. Epea larunbatarekin agortzen bada, hurrengo astelehenera arte luzatuko da.

– Proposamen teknikoak jendaurrean irekitzea (2. zenbakiko gutunazala): 2001eko apirilaren 25eko eguerdiko 12etan, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan (Arrieta kalea, 12 –31002-Iruña–).

– Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea (3. zenbakiko gutunazala): 2001eko maiatzaren 4ko eguerdiko 12etan, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan (Arrieta kalea, 12 –31002-Iruña–).

– Klausula administratibo partikularren eta baldintza teknikoen pleguak lizitatzaileren eskura daude Parlamentuko Erregistro Orokorrean (Arrieta kalea, 12-3. solairua), edo, bestela, Parlamentuaren webgunearen bidez (www.parlamentonavarra.es).

Iruñean, 2001eko martxoaren 13an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Erabakia, Nafarroako Parlamentuko Liburutegirako kudeaketa integraleko sistema informatikoa esleitzeko

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/98 Foru Legeko 97.3 artikulua ezarritakoa betez, jakinarazten da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, ondoko kontratua esleitu duela:

– Kontratuaren xedea: Nafarroako Parlamentuko Liburutegirako kudeaketa integraleko sistema informatikoa eskuratzea.

– Adjudikazio modua eta prozedura: lehiaketa, prozedura irekia.

– Kontratuaren prezioa: 6.684.080 pezeta (40.172,13 euro).

– Kontratuaren epea: 20 egun.

– Esleipen hartzailea: Baratz, Servicios de Teledocumentación S.A.

Iruñean, 2001eko martxoaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---